BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5784

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 8koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Kulturako sailburuak 2011ko uztailaren 28an emandako Aginduan finkaturiko diru-laguntzak esleitzen dituena.

Euskarazko hedabideak hobetzeko azterketak egite aldera, diru-laguntzak emateko modua arautuz eta deia eginez Kulturako sailburuak 2011ko uztailaren 28an emandako Aginduak finkatutakoari jarraituz (EHAA, 2011ko abuztuaren 29koa, 163. zk.) eta, aldi berean, Balorazio-batzordeak eginiko proposamena gogoan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Goian adierazitako aginduan finkatutako baldintzetako bat bete ez izanagatik I. eranskinean zehazten diren egitasmoak bazterrean uztea.

2. artikulua.– Goian adierazitako Aginduan finkatutako baldintzak bete dituzten egitasmoak diruz laguntzea (II. eranskina).

3. artikulua.– Interesatuei ebazpen honen berri ematea.

4. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea herritar orok jakin dezan.

5. artikulua.– Laguntza-eskatzaileren bat hartutako ebazpenarekin ados ez bada eta gora jo nahi badu, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean gorako errekurtsoa egiteko aukera izango du Kulturako sailburuaren aurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 8a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
MARÍA LOURDES AUZMENDI AYERBE.

I. ERANSKINA

DEIALDIAK FINKATUTAKO BALDINTZETAKO BAT BETE EZ IZANAGATIK BAZTERREAN UTZITAKO EGITASMOAK

Eskatzailea	Egitasmoa	Expediente zk.	Zioa
Asociación Cultural Xorroxin Elkartea	Xorroxin irratiaren hedapen eremuan audientzia ikerketa egitea	HEH-2011A1/0002	Epez kanpo aurkeztutako eskabidea (8. artikulua).
Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa	Euskarazko tokiko hedabideen irismen eta asebetetze maila globalaren azterketa	HEH-2011A1/0003	Epez kanpo aurkeztutako eskabidea (8. artikulua).

II. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO EGITASMOAK

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente zk.	Diru-laguntza
GEU (Gasteiz Euskalduna Elkartea)	Gasteizko hedabidea indartzeko eta eremu berrietara zabaltzeko azterketa.	HEH-2011A0/0001	**15.000**
Goiena Komunikazio Zerbitzuak	Erabiltzaileen informazioa kontsumitzeko ohiturak eta etorkizunerako joerak/jokaerak 2011.	HEH-2011A0/0003	**15.000**
Goierriko Hedabideak SL	*Goierritarra* hamabostekaria eta *Otamotz* hilabetekariaren bateratze azterketa.	HEH-2011A0/0002	**15.000**
11 Barri SL	Lea-Artibai eta Mutrikuko egunkari digitala.	HEH-2011A1/0001	**2.020**